



KRUTZAGA AMEZKETARRA LOS ANGELESEN

AEBetako hirian dago 'Castelvania, Lords of The Shadows' bideo-jokoaren soinu bandaren azken lanak egiten 5

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteartea
2010-07-20

VIII. URTEA 2.056. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Estibaliz Alkorta, Josune Zabala eta Asier Sarasua webgunearen aurkezpenan. E.MAIZ

AHOZKO TRADIZIOAN SAKONTZEKO WEBGUNE BERRIA

VILLABONA Mintzolak ahozkoitasunaren behatokiaren inguruko informazio guztia eskaintzen duen ataria aurkeztu du 3

Maite Aranaldek gose greba uztea erabaki du «baldintzak hobetuko dizkiotelako»

POLITIKA Bihar erabakiko dute Londresen Ibarluzea ibartarra estraditatuko duten ala ez; Zelarain billabonatarra berriz gaur epaituko dute Madrilen 2



Txintxarri abesbatzaren eta Sutarri dantza taldearen emanaldia. HITZA

Bukatu dira Alegiako Karmen jaiak eta Santamañak

JAIAK Alegiako Txintxarri abesbatzak emanaldi berezia eskaini zuen herenegun plazan 4



Markel Olano Art Panel enpresan. HITZA

Gipuzkoako Ahaldun Nagusia izan da Apatxa Errekan

EKONOMIA Kriaren Aurkako Planaren baitan laguntza jaso duten bi enpresa bisitatu ditu 5

«Baldintzak hobetuko dizkiotelako», gose greba utzi du Aranaldek

Politika » Oskar Zelarain gaur epaituko dute eta bihar erabakiko dute Ibarluzea estraditatu duten ala ez.

ERREDAKZIOA

Hamabost bat egun gose greban igaro ondoren, hau bertan behera uztea erabaki zuen Maite Aranalde preso ibartarrak pasa den larunbatean. Poitiers-Vivone espetxean bakarturik zuten Aranalde eta horregatik ekin zion protestari. Baina, orain, espetxe zuzendaritzak jakitera eman duenez, beste euskal preso batekin jarriko dute.

Amaierrako nahikoa ahulduta aurkitzen zen eskualdekoa. Baina, ostiralean jada, zerbaite jaten hasi zen. Borrokaldiaren ostean, baldintza hobeean aurkitzen da Aranalde. CDak, liburua eta egunkariak jaso ditzake jada.

Aurrez Frantziar estatuan preso egona da Aranalde eta orduan ere



Maite Aranalde aurkitzen den kartzelara martxa egin zuten joan den larunbatean. HITZA

30 eguneko gose greba bat burutu zuen oinarritzko bizi baldintzen defentsan.

Ibartarren babes

Larunbatean, Ziburu, Ibarra eta Iruñako 70 lagun inguru Poitiers-Vivone espetxera joan ziren Ara-

nalderi eta gose greban zeuden beste bi presoekin elkartasuna adierazteko.

Hemendik joandakoei kartzela aurkitzen den herriko zazpi bizilagun ere elkartu zitzaizkien. Baita, bertako hainbat komunikabide ere. Oihuka aritu ziren eta suziriak

bota zituzten. Une hunkigarriak bizitu zituzten, Maite Aranalderen oihuak entzuteko aukera ere izan zuten.

Gari Ibarluzearen epaiketa

Gari Ibarluzea Londresen dago preso. Erresuma Batuko Poliziak

ibartarra martxoan atxilotu zuen. 2006tik bilatze eta atxilotze agindupean zegoen Ibarluzea, kale erasoekin lotuta. Bihar epaituko dute ibartarra, eta erabaki hona estraditatu duten edozein.

Ibarluzearen egoeraren berri emateko, bihar batzar informatibo egingo dute Ibarro plazan. Ekitaldia 19:30ean izango da eta ondoren, mobilizazioa egingo dute.

Haimar Altunaren berririk ez

Amnistiaren Aldeko Mugimendua jakitera eman duenez, Haimar Altuna Soto del Realeko espetxean aurkitzen zen, baina Huelvara eramango zutela adierazi zioten. Honen ondotik, joan den ostiralaz geroztik, ez dakite ezer Lizartzako presoaz.

Zelarain epaituko dute gaur

Auzitegi Nazionalak gaur epaituko du Oskar Zelarain billabonatarra. 2001ean, Jose Javier Mugica Leitzako UPNko zinegotzia hil izana leporatzen diote. Hiru urteko kartzela zigorra eskatzen dute Zelarainentzat, txiki delituen gatik, eta beste hamarrek erabateko gaitasungabetzea, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionaleko egoitza bonba bat jartzeagatik.

Krisiaren Aurkako Planarekin eskualdeko zortzi enpresei eman diete laguntza

Ibarra » Atzo, Apatza Errekan kokatuta dauden horietako bi ezagutzen izan ziren Ahaldu Nagusia eta Berrikuntza Diputatua.

ERREDAKZIOA

Krisiaren Aurkako Planarekin Tolosaldeko zortzi enpresei eman dio laguntza Gipuzkoako Foru Aldundiak. Hala, hamar proiektu ezberdin gauzatu ahal izateko, denera, 1.120.975 euro jaso dituzte inguruko lantegi ezberdinek. Horietatik bi Apatza Erreka industrigunean daude kokatuta.

Egitasmo honen baitan, atzo onuradun diren enpresetara bisita etorri ziren Markel Olano, Gi-



Olano eta Guridi Art Panel enpresako nagusiarekin, hau bisititzen. HITZA

ten proiektuei buruzko xehetasunak jasotzea, eta krisiari aurre egiteko 2010eko planean aurreikusi dituzten neurrien eraginkortasuna egiaztatzea.

Markel Olanok lan partekatua garrantzia nabarmendu zuen atzoko agerraldian. «Ikusten ari gara lankidetzaren publiko-privatua ezinbestekoa dela, are gehiago krisi garaian, zeinetan ezinezkoa baita norbera bere aldetik joatea. Era-kundea ahalegin berezia egiten ari da, baina ezin hura nabarmendu, enpresari handi eta txiki askoren ahalegina nabarmendu gabe, ideia bat, proiektu bat, enpresa bat aurrera eramateko ahalegina» azaldu zuen.

Gaineratu zuen «Tolosaldean, ikusten dugu 2010 Krisiaren aurkako Planean parte hartu duten enpresak esparru desberdinetakoak direla, eta apustu handia egin dutela 17 gazte kualifikatu kontratatuz; besteak beste, ingeniariak eta doktoreak. Kontuan izan beharrekoea da planaren neurriak pertsonen mesedetan direla, oraingoan, gazteen mesedetan».

Krisiaren Aurkako Plana dela eta, 17 lagun kualifikatu kontratatu dituzte: 10 ingeniari I+Geko proiektuak garatzeko; 4 ingeniari I+Geko unitate edo sailetan lan egiteko, eta hiru lizentziatu, azkenik, nazioarteko proiektuak garatzeko.

puzkoako Ahaldu Nagusia eta Jose Ramon Guridi, Berrikuntzako diputatua. Ibarra Apatza Erreka industrigunean izan ziren atzo, besteak beste, Ibaia Energia eta Art Panel Formas y Superficies enpresa ikusten.

Honenbestez, Tolosaldeko bi enpresa dira, Krisiaren aurkako Planaren barruko laguntza programan parte hartzen dutenak. Aipatutakoak, hain zuzen ere.

Topaketa honen helburua da «bertatik bertara ezagutzea enpresen egoera, Foru Aldundiak eta enpresak batera finantzatzeko dituz-

Kultur jarduerak gauzatzeko laguntzak eskatzeko epea ireki du Udalak

Ibarra » Kultur Etxean, internet bidez edo telefonoz bideratu daitezke eskaerak; epea datorren astean amaitzen da.

ERREDAKZIOA

Ibarroko Udalak 2010 urterako kultur jardueretarako diru-laguntza eskararak aurkezteko deialdia zabaldu du. Dokumentazioa, informazioa eta eskaerak Benito Iza-gire kultur etxean (Euskal Herria kalea, 44), www.ibarrakoudala.net webgunean edo 943 67 03 99 telefono zenbakira deituta eskuratu daitezke.

Diru-laguntza hauek jaso ahal izango dituzte deialdian zehaztutako alorretan ekintza kulturalak burutzen dituzten eta irabazi asmorik gabeko Ibarren errotutako pertsona fisiko edo juridikoek.

Eskaerak egin ostean, Kultura eta Gazteria Batzordeak aztertuko eta ebaluatuko ditu, eta berak emango du horien proposamena, eta horiek ebazteko Tokiko Gobernu Batzarrari aurkeztuko dizkio. Urteko programaziorako, eskaerak aurkezteko epea datorren astean amaitzen da. Kultur ekitaldi puntuarterakoan berriz, eskaerak jarduerak gauzatu baino bi hilabete lehenago aurkeztu behar dira.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Estibaliz Alkorta Foru Aldundiko Euskara zuzendaria, Josune Zabala Mintzolako zuzendaria eta Asier Sarasua Codesyntax enpresako ordezkaria. E. MAIZ

Ahozkotasunaren behatokiaren inguruko informazioa, eskura

Villabona » Atzo aurkeztu zuten www.mintzola.com ataria. Zabala, Sarasua eta Alkorta izan ziren aurkezpen ekitaldian.

ENERITZ MAIZ

Mintzolaaren egitasmoetarako baliagarri izango den webgunea aurkeztu zuten atzo Subijana Etxean. Mintzola Fundazioaren zuzendari Josune Zabalak, CodeSyntax enpresaren ordezkari Asier Sarasua eta Gipuzkoko Foru Aldun-

diaren izenean, Euskara Zuzendari orokorra den Estibaliz Alkortak aurkeztu zuten.

Mintzola, ahazko tradizioaren sakonduz, gizartearen premia berriei erantzun egokia eman nahi dien erakundea da. Ahozkotasunaren ikerketa da bere zeregin nagusia, eta ondorengo bi egiteko ditu zehaztuta: ahazko tradizioaren behatoki dinamikoia izatea eta ahazko komunikazio berriei erantzutea. Fundazioa bere oinarriak sendotzen ari den honetan, bere mezua eta helburuak sarean zabalzera bideratuko dituen

www.mintzola.com ataria eraiki du. Bertan, lau atal nagusi nabarmendu dituzte: aurkezpena, egitasmoak, aretoen erabilera eta albisteak. Horrez gain, albistegia ere badu, Mintzola Fundazioaren inguruko berriak argitaratuko dituen. Buletin batekin lotuta egongo da eta albisteak RSS zein e-postaz jasotzeko aukera emango du.

Webgunea ahazkotasunaren inguruan interesa duen edonorentzat izan daiteke baliagarria eta fundazioari buruzko informazioa lortzeko gain, beste aukera batzuk ere eskaintzen ditu: aretoen erre-

serbak bideratzea, albisteei buruzko iritziak ematea edo zuzenean Mintzolarekin harremanetan jaritzea.

Helburua, beraz, hasieratik, Mintzolak dituen behar eta premiei erantzutea izan da, betiere webgunea erabiliko duten bisitariengan pentsatuta. Webgunea irisgarria da, nola ez, eta erabilgarritasunari ere garrantzi berezia eskaini nahi izan diote, erabiltzaileei, informazioa azkar aurkitu dezaten.

Beste ezaugarri garrantzitsu bat ere kontuan izan dute: eleanizta-

sun. Kasu honetan, nahiz eta webgunea hasiera batean euskaraz bakarrik egon, laster batean beste hizkuntza batzuetan ere funtzionatuko du (gutxienez, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez).

Aurrera begirako asmoak

Bide batez, datorren urteko egitasmoei buruzko azalpenak ere eman zituzten. «Mintzolaaren egitasmoan euskararen tradizio generoen diagnosia egiteak du lehentasuna une honetan. Beharrezko ikusten dugu euskararen ekosisteman ahazko generoen egoera zein den jakitea, hortik etorriko baitira etorkizuneko ikerketa eta egitasmoak» azaldu zuten. Horretarako, 2011. urtean, ikerketa beka bat aurkeztu nahi dute.

Egitasmoekin jarraituz, Zumaian eta Azepeitian gazteen jardunean hitanoa sustatu eta bideratzeko lanean eta Tolosan DBEko gazteen hizkuntza jarrera, erabilera eta konpetentziak jorratzeko ikerketarekin jarraituko dute.

Ikerketaz gain, hainbat formazio ikastaro antolatu dira irakasle, hizkuntza normalizazio teknikari eta ahazkotasunaren interesa dutenentzat. Aurtengo udan sortu berri diren, Bertozaletan Elkartearekin elkarlanean antolatu dituzten *Ahoa Bete Hots* jardunaldiek ere jarraipena izango dute datorren urtean, eta ahazko komunikazioaren gaineko argitalpen lan bati ekingo diote une honetan duten ezagutza gizaratean zabaldu asmoz. Hilean behin ahazko generoei lotutako hitzaldi, mahai-inguru eta mintegiak antolatuko dituzte egoitzan bertan. Eta Euskal Herriko Antzerkizale Elkartearekin, Kantuzale Elkartearekin eta Ipuin kontalariarekin lanean diharduzten, gai hauei loturiko ikerketak zein izan beharko luketen zehazten.

Udaberri dantza taldekoak Valladolidera doaz

Tolosa » Valladolideko Viana de Cega herrira doaz 1988. urtetik ospatzen den bertako jaialdian parte hartzera.

E. MAIZ

Hilaren 30ean, Tolosako Udaberri dantza taldeko kideak Valladolideko Viana de Cega herrira doaz. 1988. urteaz gero, urtero ospatzen den jaialdira gonbidatu ditu bertako Rotonda de Viana de Cega dantza taldeak.



Udaberri dantza taldeko kideak. HITZA

Valladolidetik 15 kilometrotara dago eta bertako dantza taldea, 80 pertsonako talde zabala izatera iritsi bazen ere, gaur egun 16 dantzariz osatua dago.

Urteak dira jaialdi honetara euskal dantza-taldeak gonbidatzen dituztela. Euskal tradizioa deigarri egiten zaie, nahiz eta, geografikoki beraiegandik oso urrutietan egon. Beraien kulturarekin alderatuta, oso desberdina omen da.

Udaberriko dantzariak, herriko Kiroldegian emango diete ostatu

eta otorduak Kultur Etxean egingo dituzte. Bidaia aprobetxatuz, inguruko herriak ere ezagutzeko parada izango dute.

Guzti hau prestatzeko, Udaberri dantza taldeko kideak «jo eta su» entseatzeko aritu dira uztaile guztian zehar, nahiz eta horretarako instalazioak «egokienak ez izan».

Viana de Cega herrian, Udaberri dantza taldeko dantzariak «gure kulturaren onena» erakutsiko dutela nabarmendu dute.

Iragarki laburrak

ALOKAIRUA

■ **Baserria edo borda.** Eskualdean baserria edo borda bat alokatuko genuke. Interesatuak deitu 634 45 9110 telefono zenbakira.

BESTELAKOAK

■ **Txakurkumeak.** Txakurkumeak oparitzen ditut. Interesa duenak, dei dezala 678 61 83 30 telefono zenbakira.

Gidariak behar dira dokumentazioa eta baliak banatzeko. Postu finkoak erakunde publikoetan. Lanaldi jarraia.

610-71 97 82

Lan publikoetarako zaintzaileak, igeltseroak, arotzak, argiketariak, eta mantenurako langileak behar dira. Lanpostu finkoak.

600-97 74 95

Telefonistak/harreragileak behar dira eraikin publikoetarako. Postu finkoak. Lanaldi jarraia.

607 -25 42 40



Txintxarri abesbatzaren hereneguneko emanaldia. HITZA



Zaldi karrera ere egin zuten Asteasun. S. GOMEZ



Albizturren herri kirol erakustaldia izan zen; lastoa altxatzen eta aizkoran egin zuten. S. GOMEZ



Santio jaien esperoan

Festak » Udararekin batera hasi dira herriko jaiak loratzen; asteburuan Asteasu eta Albizturgo Santamañak eta Alegiako Karmenak izan dira.

ERREDAKZIOA

Hasi besterik ez diren arren, herri batzuetan horrenbeste denboran prestatuko udako jaiak ere bukatzen hasi dira. Pasa berri den asteburuan Albiztur eta Asteasuko Santamañak bukatu dira, baita Alegiako Karmen jaiak ere. Orain Villabonako Santio jaien txanda da, larunbatean hasiko direnak, hain zuzen.

Batzuk hasi eta besteak bukatu, hortaz. Albizturren Santamañak ospatzeko herri kirolen erakustaldia izan zuten arratsaldean. Iparraldeko jokoak izan ziren nagusi (ingudea, lastoa...), baina etorkizuneko aizkolarien lana ikusteko parada ere izan zen. Bertsolariak eta bazkari zein afari ederrak ere izan zituzten. Asteasun ere herri kirolak izan ziren. Goizean Floren Nazabal, Ugaitz Mugerza eta Jokin Alkizalete aizkolaria izan ziren, baita Joseba Ostolaza eta 12 urte besterik ez dituen Urdax Magunazelaia harri-jasotzaileak ere. Arratsaldean geroz eta jende gehiago erakartzen duen Zaldi Lasterketa izan zen, hamargarren edizioa, hain zuzen.

Alegian ere bukatu dituzte Karmen jaiak. Ekitaldi ugari izan dira bertan azken egunetan. Jai batzordeak kontzertuen gau indartzeko apustua egin du aurtengoan eta horregatik izan ziren pasa den ostiralean Humus eta We are standard taldeen kontzertuak. Eguraldiak ez zuen gehiegi lagundu, baina hala ere, jende asko izan zen kontzertuetan, batez ere, bigarren goan. Beste hainbat ekitaldi den artean, bada nabarmentzeko beste bat ere, izan ere, Txintxarri abesbatzak eta Sutarri dantza taldeak emanaldi berezia eskaini zuten herenegun eguerdian herriko plazan. Aipatu behar da, era berean, Udalak herriko Lukas Lasa omendu zuela emanaldiaren erdian, herriko festetan urteetan egin duen lana eskertzeko. Kontzertuan, hortaz, eten bat egin zuten, eta Udalekoak igo ziren taula

gainera opariak ematera. Sutarrikoek, gainera, aurrekoa dantzatu zioten, Txintxarri eta Txintxarri Txiki abesbatzek abesten zuten bitartean.

Kontzertu herrikoia

Aipatu moduan, herenegun plaza erruz bete zen Txintxarri abesbatzaren emanaldia ikustera. Tolosaldeko eta Goierriko Txistulariek, Tolosaldeko Musika Eskolako Metal Boskoteak eta perkusionistek, Mariaje Rekondo herriko piano-jotzaileak, Txintxarri eta Txintxarri Txiki abesbatzek, eta herriko Sutarri dantza taldeak parte hartu zuten. Garbiñe Orbegozo aritu zen zuzendari kanturik gehienetan. Guztira ia 90 pertsona aritu ziren taula gainean.

Emanaldia herrikoia izan zen oso eta plazan elkartutako jendetzak txalo zaparrada handiak eskaini zituen. Euskal doinu ezagunak kantatu zituzten eta nabarmentzeko da Nerea Elola Txintxarri abesbatzako sopranoak *Baldorba* abestian egindako bakar-lana. Txalo zaparrada handiak jaso zituen Elolaren kantatzeko era gozoak. Txintxarri Txiki abesbatzakoek zenbait abestitan kantatu zuten. Andoni Egaiñak idatzitako bertso musikatuak ere entzun ziren emanaldian.

Era berean, txistuak tradizio handia izan du betidanik Alegian, eta hala, gogoan izan zituzten XX. mendetik gaur arte herrian izan diren txistulariak eta tradizio horri eusten lagundu duten pertsonak. Herriko zaharrenek oraindik ere gogoan dute Laureano Zubeldia, *Txanbolin* ezizenez ezagutzen zen herritarra. Gerra aurreko garaian txistuaren eta danbolinaren laguntzaz aritzen zen herriko plaza-ko arkupeetan jarrita.

Berarekin batera herriko Imanol Artano, Joxe Mari Zabala, Alberto Gaztañana *Abito* eta Rikardo zein German Intxausti aita-semeak izan zituzten gogoan hereneguneko emanaldian.



Promozio berria -Ibarra-

Sustatzailea:
Epergain
Eraikuntzak eta
Promozioak, S.L.
Eraikitzen du:
Aburuza
Eraikuntzak S.A

Kale Berria 46 • Villabona • 943 69 0297 • www.aburuza.com

itzulnet
ITZULPUN ZERBITZUA

AZKARTASUNA ETA
KALITATEA

HIZKUNTZA KONBINAZIO
UGARI ETA
PREZIO LEHIAKORRAK

BEHERAPENAK BOLLUMEN
ETA MAIZTASUNARENGATIK

San Frantzisko 11, Tolosa
www.itzulnet.net

Mikel F. Krutzaga musika ekoizlea Los Angelesen

Amezketak » *Castelvania*, *Lords of The Shadows* bideo-jokoaren soinu bandaren azken lanak egitera joan da.

OIHANA IGUARAN

Mikel F. Krutzaga euskal ekoizle eta soinu teknikari amezketarra Ubedako (Andaluzia) nazioarteko 6. zinema musika jaialdian *Master Class* bat eman ostean, Los Angeleserako bidean da, *Castelvania*, *Lords of The Shadows* bideo-jokoaren soinu bandari azken ukituak emateko. Bideo-joko hau, Japoniako Konami konpainiak ekoizten du, eta Playstation 3 konsolak udazkenerako duen izar handie-

netariko da. Bideo-joko hau jantzik duen musika Oscar Araujok idatzi du eta Bratislavako orkestra sinfonikoak grabatu du. Ekoizpe-
na eta nahasketak Amezketako Musikart estudioetan egin dituzte 2010. urtearen urtarrila eta ekaina bitartean.

Krutzagak, Benito Lertxundi, Mikel Urdangarin, Oreka TX eta hainbat talde eta bakarlariekin ekoizle eta teknikariak, 2004. urtean Grammy bat irabazi zuen Kepa Junkeraren *K* diskoan egindako lanagatik. Amezketarrak esan duenez, Los Angeleseko Bernie Grudman estudio ospetsuak dirala honi eman behar zaion azken ikustua emateko tokirik egokiena. Konami konpainiak joko honen 2 milioi ale saltzea espero du.



Mikel F. Krutzaga estudioan. HITZA



Erakusketan ikusgai eta salgai dagoen lanetako bat. ENERITZ MAIZ

Irailaren 12ra arte luzatuko da Pellejeroren erakusketa

Hernialde » Herriko ostatuan Kar mele Pellejerok jarritako erakusketa, iraila arte egongo da ikusgai.

OIHANA IGUARAN

Hasiera batean, hil honekin batera amaitu behar zen Kar mele Pellejero tolosarrak Hernialdeko ostatuan duen erakusketa, baina epea luzatzea erabaki dute, eta irailaren 12ra arte ikusi ahal izango da.

Ekainean jarri zen erakusketa honetan, era guztietako margolanak bildu ditu Pellejerok; paisaie-

kin hasi eta abstraktuak diren lanak arte. Haurrentzako modukoak diruditenak ere ikusi daitezke. Erregistro zabala beraz margolari honena, hainbat teknika probatutakoa baita.

Berreskuratutako zaletasuna

Txikitatik izan omen du Pellejerok margotzeko zaletasuna, baina aspaldi alde batera utzia zuen. Dena den, halabeharrik zaletasuna berri-
ritu dio, istripu baten ondorioz baja harturik, denbora libre betetzeko aitzakia eman baitio. Pintzelak harturik hasi zen berriz, une beltzei kolorea jarri nahian.

Artistak berak azaldu duen mo-

duan, hasiera batean ez omen zuen jendeari bere lanak erakusteko asmorik, baina ordu asko eman ditu margotzen, eta jadanik etxean ez du nahikoa horma bere lan guztiak zintzilikatzeko.

Jendeaurrean

Hilero herriko ostatuan egoten diren erakusketak ikusirik, bere margolanak ere bertan jartzera ausartu zen azkenean.

Honela, gaur egun bere bizilekua den Hernialden jarri du lehen erakusketa.

Irailaren 12ra arte izango da lan hauetaz gozatzeko eta nahi izanez gero erosteko aukera, ostatuan.



harpidedun izateak badu saria

① **Afaria**

Billabonako **Oinkari dantza** taldeak antolatuta, **uztailaren 25ean**, Euskal Jaia-
ren baitan, **gaueko 21:00etatik aurrera** izango den afarirako **2 sarrera bikoitz**.



② **Abentura**

Bizi Bizirik Larraitzen zabaldu berria duen **Txindokiko Itzala** parkerako, **bi sarrera bikoitz**.



③ **Sarrerak**

Gipuzkoa **Indoor Kartingek** Tolosan zabaldu duen **auto zirkuiturako 2 sarrera** (irabazle bakoitzarentzat bana).



④ **Sarrerak**
Errenteriako **Txikikaia** haur parkerako **5 sarrera bikoitz**.

Niessen merkataritza zentroa
943 107 888
www.txikikaia.com



Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zein eskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegunean, 09:00etatik 17:00etara. Saridunak larunbatean argitaratuko ditugu.

harpidedunen
TXOKOA hitza



Jende ugari elkartu zen Alegian herenegun, V. Txintxarri Saria ikusteko amoz. SARA GOMEZ

Gazteek 1.000 kiloko aldeaz irabazi dute V. Txintxarri Saria

Harri-jasotzaileak

Alegiako jaien azken egunean jokatu da gazteen eta beteranoen arteko proba.

ERREDAKZIOA

Aimar Irigoien; Hodei Iruretagoiena, *Izeta IV.a*; Urtzi Telleria eta Unai Bertiz aritu ziren gazteen taldean. Hain gazte ez diren harri-jasotzaile taldea, berriz, J.R. Iruretagoienak, *Izeta II.ak*; J.M. Iruretagoiena, *Izeta III.ak*; Joseba Ostolazak eta Patxi Larretxeak osatu zuten.

Alegiako Karmen jaien azken egunean jokatu zen bi talde hauen arteko lehia, hau da, V. Txintxarri Saria. Gazteek 17.537 kilo bizkareratu zituzten eta beteranoek 16.350. Talde bakoitzeko kirolari



Aimar Irigoien 125 kiloko errektangularrarekin. SARA GOMEZ

bakoitzak harri batekin 2 minutuko tanda osatu zuen. Harri bolarekin berriz, talde bakoitzetik bi bikote osatu ondoren, 2 minutuko tandak egin zituzten, txanda librean.

Erabilitako harriak ondorengo bost hauek izan ziren: 125 kiloko zilindro kopa; 125eko errektangularrak; 112,5 kiloko kubikoa; 100 kiloko zilindro-zaharra eta 100 kiloko bola.

Gipuzkoako Txapelketa Pello Argaiak irabazi du

Zizurkil » Gipuzkoako Lasto-altxatze Txapelketa irabazi zuen herenegun zizurkildarrak jasoaldi bateko errentaz.

ERREDAKZIOA

Pello Argaiak jantzi du aurtengo Gipuzkoako Lasto-Altxatze Txapelketa, jasoaldi bateko alde atera Mikel Egaña lasturtarrari.

Alegian jokatu zen herenegun Txapelketa, herriko jaien azken

egunean. Gotzon Arrieta aritzeko zen txapelketan, baina azkenean ez zuen jarduterik izan. Gauzak horrela, hiru herri-kirolari aritu ziren lehian. Hauetan onena Pello Argaiak zizurkildarra izan zen, Egaña eta Urrestiren aurretik gelditu baitzen. Azken hau mutrikuarra da.

Kirolariek lurretik zazpi metro-ra ahalik eta jasoaldi gehien egin behar izan zituzten 45 kiloko lastofardoarekin, 2 minutuan. Argaiak 13 jasoaldi lortu zituen, Egaña 12 eta Urrestik 9.

Ehunmilak eta Bi Handien irabazleak

ERREDAKZIOA

Gizonezkoetan Imanol Alesonek (25: 14:18) lortu zuen garaipena. Emakumezkoetan Nerea Martinez (29:26:18) iritsi zen lehen postuan helmugara.

Goierriko Bi Handiak proban al-

diz, gizonetzkoetan lehen sailkatua Xabier Larrion izan zen (13:39:05). Emakumezkoetan denborarik onena Elena Calvilok (15:36:48) egin zuen.

Lasterketen inguruan balantze positiboa egin dute antolatzaileak.

» ESKUALDEKO PARTE-HARTZAILEAK

EHUNMILAK PROBA Gizonezkoak

13- Joseba Gurpegi Agesta. Alkiza, (30:49:03).

15- Asier Mugika Briz. Elduain, (31:19:45).

47- Arkaitz Goikoetxeaundi Zabala. Anoeta; (39:03:07).

48- Iker Aizpuru Imaz. Tolosa, (39:03:09).

86- Jacinto Lajas Vazquez. Irura, (44:09:15).

112- Jose Luis Ferreira Moura. Asteasu; (47:13:01).

113- Aitor Agirre Urkia. Villabona, (47:13:04).

GOIERRIKO BI HANDIAK PROBA (82 kilometro) Gizonezkoak

13- Txomin Isuntza Zelaia.

Asteasu; (16:16:30).

21- Joxe Mari Etxeberria

Garmendia. Zizurkil; (17:08:56).

38- Fermin Arregi Irazusta.

Tolosa; (19:34:23).

55- Lontxo Iriarte Tellejero.

Ikaztegieta; (20:55:16).

Emakumezkoak

2- Monica Grajera Jorba. Alkiza, (16:16:26).

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

'Urki'k irabazi du Euskal Herriko Segatxapelketa

Sega » Orendaindarraren atzetik Jon Kanflanka leitzarrak amaitu du; Jokin Etxeberria amasarra laugarren izan da.

ERREDAKZIOA

Herenegun jokatu zen 2010eko Euskal Herriko Segatxapelketaren finala, Oartzungo (Gipuzkoa) Pikoketako belardian. 2003an bezala, Jexuxmari Ormaetxeak, *Urki*, jantzi zuen txapela.

Bigarren sailkatuari, Jon Kanflanka leitzarrari, 274,5 kiloko alde kendu zion txapelak. Etxeberria amasarra, bere lehen finalean, laugarren postuan gelditu zen. Hirugarren David Mariñelarenak egin zuen.

Oartzungo Pikoketako belardian 250 ikusle bildu ziren eta eguraldi egokiarekin jokatu zen saioa. Belarrari dagokionez berriz, final

» SAILKAPENA

2010eko Euskal Herriko Segatxapelketa

- 1-Jexuxmari Ormaetxea, *Urki* **2.884,5 kilo**
- 2-Jon Kanflanka **2.612 kilo**
- 3-David Mariñelarena **2.509 kilo**
- 4-Jokin Etxeberria **2.237,5 kilo**



Jon Kanflanka leitzarra bigarren postuan gelditu zen. HITZA

NAZIOARTEKO ERAN ERE EUSKAL HERRIKOIA

Etxelekun (Nafarroa) ere Euskal Herriko segatxapelketa jokatu zen asteburuan. Kasu honetan ordea, Almitza elkarteak antolatuta eta nazioarteko eran.

Bertan 28 segalari izan ziren: gizonetakoetan 17, emakumetakoetan 7 eta gaztetxoetako 4. Eguraldiak lagunduta, giro ederrean jokatu zen Txapelketa hau ere.

Gizonetakoetan 100 metro karratuko partzela ebaki behar izan zuten azkartasuna eta txukuntasuna kontutan hartuz. Emakume eta gaztetxoek egin behar izan zuten lana berriz, 35 metro karratuko partzela izan zen. Hemen ere denbora eta txukuntasuna hartu ziren kontutan.

Gizonetakoetan irabazlea Alitzoko Mielmari Jauregi izan zen. Bigarren Gazteluko Joxe Gabirondo gelditu zen eta hirugarren Juan Mari Agirrezabala. Emakumetakoetan Arrate Garinek irabazi zuen, Naroa Geresta (Zizurkil) eta lurre Olanoren (Gaztelu) aurretik gelditu ostean. Gaztetxoetan Aimar Garmendia izan zen onena.

bat jokatzeko aproposa zela esan zuten adituek.


Bigarren posturako lehia

Igandeko finalean lehian aritu ziren lau segalariak ordubeteko lana egin behar izan zuten, eta kilotara erabaki zen azken sailkapena. Txartel gorria jasotzen zuen segalariak, txukun ez ebakitzegatik, 20 kiloko penalizazioa zuen. Finalean epaileek Kanflanka eta Mariñelarena zigortu zituzten txartel banarekin. Segalari bakoitzak seina sail zituen prest, hau da, 1.314 metro karratu: 256 metro karratuko sail bana, 225eko bina, 225eko sail bana, 216ko beste bat eta azkena 196koa.

Sailik handiena ebakitzen hasi ziren lehenik lau segalariak. Honen amaieran, Jexuxmari Ormaetxeak minutu eta 20 sengundoko alde ateratzen zioen Mariñelarenari, minutu eta 53 segundoko Kanflankari eta 2 minutuko Etxeberriari. Sail guztietan lehen *Urki* izan zen. Orendaindarrak txukun eta sega-kolpe tinkoarekin jardun zuen. Aldiz, bigarren eta hirugarren posturako lehian, parean ibili ziren bi nafarrak. Amaieran sail eskas bateko alde ateratzen zion Mariñelarenak Kanflankari, baina leitzarrak kilo gehiago ebaki zituenez bigarren postuan sailkatu zen.



Jexuxmari Ormaetxea, 'Urki', orendaindarrak irabazi du aurtengo Euskal Herriko Segatxapelketan, Oartzungen. HITZA



Lehen: 31,53 €
Orain: 25,22 €



Lehen: 19,83 €
Orain: 15,86 €



Lehen: 66,12 €
Orain: 52,9 €

%20



Lehen: 28,48 €
Orain: 22,78 €



Lehen: 57,17 €
Orain: 45,74 €



Lehen: 28,48 €
Orain: 22,78 €

%20



Euskal Herriko Plaza orrialdea



EHikoPLAZA

www.euskalherriko
plaza.com



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L. ko ideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdia

■ **Berastegi.** Salontzo jaietako hasiera emateko, abuztuaren 6an, herri afaria egingo dute, (txekorria burduntzian). Txartelak salgai Zelai taberna, Dendaberri, Urepele biltokia eta Basurde elkartean 16 eurotan (12 urtetik beherakoek 8 euro).

Ikastaroa

■ **Villabona.** Ahozotasuna kulturaren, eguneroko jardun berezitueta eta haur munduan jardunaldiak burutuko dira ostegunean, ostiralean eta larunbatean Subijana Etxean. Izen-emateko epea uztailearen 16ra luzatuko da 50 eurotan (EH-BEko bazkideek eta ikasle eta langabetuek 35 euro) Mintzola Fundazioan (943 69 41 29 edo administrazioa@bertsozale.com).

Erakusketak

■ **Tolosa.** Pixel Panchoren erakusketa Gko Gallreyn (Kale Nagusia) larunbata bitartean.
■ **Tolosa.** *Aluminum* erakusketa Frontonjatetxean (aluminiozko eskulturak eta koadroak) abuztuak 31 arte.
■ **Tolosa.** Edurne Pasaban mendigoizalearen inguruko erakusketa Aranburu jauregian irailaren 12a bitarte, 17:30etik 20:30ak arte. Erakusketa bere bidaietako materialaz, argazki, irudi eta haurrek egindako marrazkiez dago osatuta.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Etxebeste, J. M. Gernikoko arbola, 3. 943 65 10 45.
■ **Leitza.** Campos, M. Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Tony Canto ere txundituta Topic-ekin

TOLOSA ● Tony Canto aktorea Euskal Herritik barrena dabil egun hauetan, bere azken lana aurkezten, *El pez gordo* izenekoa, hain zuzen ere. Baina lanerako ez ezik, turismo pixka bat egiteko eta inguruak ezagutzeko denbora ere badu aktore ezagunak, eta tarte horietako batean, Topic bisitatzeko aprobetxatu du. Idoia Otegi zentroko zuzendariak eta Ana Arretxe

Tolosako Ekinbide Etxeko zuzendaria aritu ziren gidari lanetan. Cantok adierazi zuenez, «zentro hau zoragarria da, zortekoak zarete hau hemen izatean. Izan ere, zaila da horren kalitate handiko azpiegitura bat, eta anzoki bat aurkitzea». Bestalde, hau gauzatzea posible egin duten guztiak zoriandu zituen. HITZA

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info
bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31180 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P,K:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>